

# HARI IZPIA HARTZEN

EUSKAL KULTURAREN ERRONKAK NAFARROAN

## PRENTSA-OHARRA

**KULTURA JARDUNALDIA**
**Data:** 2021eko maiatzaren 28an, ostiralean.
**Tokia:** Atarrabiako Kultura Etxean.

2020ko urtarrilean antolatu genuen lehen aldiz *Hari izpia hartzen* izeneko jardunaldia Iruñean, Nafarroan euskal kulturak dituen erronkak aztertzeko asmoz.

Orduko hartan, 100 lagun inguru elkartu ginen, goiz batez, gogoeta egiteko. Bertan elkartu ginen kultur sortzaileak, kultur eragileak, udal teknikariak… euskal kulturaren gaineko kezka dugun lagunak guztiak ere.

Lehen edizioaren arrakasta ikusita eta aztertzeko gai asko dagoenez, ekimenari segida ematea erabaki dugu, orduko hartan mahai gainean jarritako gaiei tira eginez. 2021ean bi saio antolatu dira, gaiarekin interesa dutenak elkartu eta gogoeta kolektiboarekin jarraitzeko. Ikusgarritasuna eta prestigioa izango ditugu aztergai maiatzerako antolatu dugun saioan; eta lurraldea eta kultura aztertuko ditugu uztailean.

Mundu globalizatuan bizi garen honetan, gurea bezalako kultura eta hizkuntza gutxituek gero eta zailtasun handiagoak dituzte nabarmentzeko. Gutako edozeinek mundu mailako kultura du eskura eta hizkuntza handietan datorren eskaintzaren aurrean lekua egitea ez da samurra euskararen tamainako kultur eskaintzarentzat.

Zaila izateak, ordea, ez dakar ezinezko izatea. Euskarak, bere eremuan, kalitatezko eta erakargarri izan behar du, ikusgarritasuna eta prestigioa lortu behar ditu. Euskaraz sortzen den kulturak badu kalitatea, beste edozein hizkuntzetan garatutakoaren pare dagoela esan dezakegu inongo zalantzarik gabe. Baina kultura gutxitua izateak, askotan, bigarren mailako bihurtzen du, prestigiorik

## NOTA DE PRENSA

### HARI IZPIA HARTZEN
### [COGIENDO EL HILO]:
### RETOS DE LA CULTURA EN EUSKERA EN NAVARRA

**JORNADA CULTURAL**
**Fecha:** 28 de mayo de 2021, viernes.
**Lugar:** Casa de Cultura de Villava.

En enero de 2020 organizamos por primera vez en Pamplona la jornada *Hari izpia hartzen*, con el objetivo de analizar los retos de la cultura en euskera en Navarra.

En aquella ocasión, nos reunimos unas 100 personas, una mañana, para reflexionar. Allí nos reunimos creadores culturales, agentes culturales, técnicos y técnicas municipales y todas aquellas personas que nos preocupamos por la cultura en euskera.

Visto el éxito de la primera edición y dado que hay muchos temas que tratar, hemos decidido dar continuidad a la iniciativa, retomando los temas puestos sobre la mesa en aquella ocasión. En 2021 se han organizado dos sesiones para reunir a las personas interesadas en el tema y continuar con la reflexión colectiva. La visibilidad y el prestigio serán los temas a tratar en el programa organizado para el mes de mayo; y en julio analizaremos el territorio y la cultura.

Ahora que vivimos en un mundo globalizado, culturas y lenguas minoritarias como la nuestra tienen cada vez mayores dificultades para destacar. Cualquiera de nosotros tiene a su disposición una cultura mundial y hacerse un hueco ante la oferta que viene en las grandes lenguas no es fácil para la oferta cultural del tamaño del euskera.

Sin embargo, ser difícil no implica ser imposible. El euskera, en su ámbito, debe ser de calidad y atractivo, debe conseguir visibilidad y prestigio. La cultura que se crea en euskera tiene calidad, sin duda está al mismo nivel que la que se desarrolla en cualquier otra lengua. Pero el hecho de que la cultura sea minoritaria, muchas veces, la convierte en secundaria, sin



gabeko, eta pertzepzio hori aldatzea ezinbestekoa da. Horretarako garrantzi handia du ikusgarri izateak, inguruko beste kulturen pare agertzeak, eta horretan dugu erronka, ziur baikara, ikusgarri eta eskuragarri izanik, euskal kultura bizi eta gozatzea lor daitekeela, eta zenbat eta gehiagok egin bere, orduan eta prestigio handiagoa izango duela.

Ikusgarritasuna eta prestigioa antolatu ondoren, udan, kultura lurraldeari lotuta aztertuko dugu. Euskal kulturak lotura du lurralde jakin batekin, eta izan daiteke lurralde horren garapenerako elementu garrantzitsua. Horixe da uztaileko saioan aztergai izango duguna, nola egin kultura izan dadin lurralde baten garapenerako elementu.

Bi gai bi gogoeta saiorako. Indarrak bildu eta gogoeta kolektiboen bidez aurrera egiteko bidea topatzeko asmoz. Ziur baikara elkar hartuta aritzeak bide emango digula etorkizuna hobeki lantzeko.

prestigio, y es imprescindible cambiar esa percepción. Para ello es importante ser visible, comparable con otras culturas de nuestro entorno, y ése es nuestro reto, porque estamos convencidos de que, siendo visible y accesible, se puede conseguir que la cultura en euskera viva y disfrute, y cuantas más personas la hagan suya, más prestigio tendrá.

Tras organizar jornada sobre la visibilidad y el prestigio, en verano, analizaremos la correspondiente a la cultura ligada al territorio. La cultura en euskera tiene relación con un territorio concreto y puede ser un elemento importante para su desarrollo. Es lo que vamos a analizar en la edición de julio, cómo hacer de la cultura un elemento para el desarrollo de un territorio.

Dos temáticas para dos jornadas de análisis. Con el objetivo de aunar fuerzas y encontrar el camino para avanzar a través de las reflexiones colectivas, desde el convencimiento de que la colaboración nos permitirá trabajar para mejorar el futuro.

# IKUSGARRITASUNA eta PRESTIGIOA

## Egitaraua:

***8:00* - Dokumentazioa hartzea**

***8:45* – Ongi etorria erakunde antolatzaileen eskutik**

***9:00-10:00* - *Hitzaldia:* Sormena, kultura prestigiatzeko bidea**

***Oskia Ugarte*** *(Uharteko Arte Garaikide Zentroa)*

***Aurkezlea: Kristina Urrutia*** *(Nafarroako Toki-entitateetako Euskara teknikarien Sarea)*

# VISIBILIDAD y PRESTIGIO

## Programa:

***8:00* – Recogida de documentación**

***8:45* – Bienvenida de las entidades organizadoras**

***9:00-10:00* – *Ponencia:* Sormena, kultura prestigiatzeko bidea** *(La creación, camino para prestigiar la cultura)*

***Oskia Ugarte*** *(Centro de Arte Contemporáneo de Huarte)*

***Presenta: Kristina Urrutia*** *(Red de técnicas y técnicos de las entidades locales de Navarra)*



Oskia Ugarte (1978, Iruñea)
Arte garaikide proiektuen koordinazioan eta zuzendaritzan dabil. Feminismoa, lurraldea, eta artea ditu aztergai. Azken aldian,

OSKIA Ugarte (1978, Pamplona)
Trabaja en la coordinación y dirección de proyectos de arte contemporáneo. Se centra en el feminismo, el territorio y el



Uharteko Arte Garaikideko Zentroko zuzendari lanetan. Euskal Herriko Unibertsitatean Artearen historian lizentziatua. Komunikazio, kudeaketa kultural, erakusketen koordinazio eta antolakuntza lanak egin ditu Oteiza Museoan edo Moisés Pérez de Albéniz galeriarekin. *Sala de máquinas* izena zeraman *coworking* gunea sortu zuen beste 5 kiderekin. UEUko arte sailburua da eta IAC-k Nafarroan duen delegazioko burua.

Kulturan, prestigioa adibidez, ibilbide profesional serio eta zentzuzkoa duzula adierazteko balio duen terminoa da. Klasikoak eta zurrunak diren terminoen artean multzokatzen dut hitz hau nire iruditegi lexikoan. Gizakiok sortutako egitura ez naturala da, marko hertsatzaile zurruna, bat-batekotasunerako tokirik uzten ez duena. Zer litzateke aurkakoa? Desprestigioa? Izen txarra izatea? Marjinazioa? Ilegaltasuna? Irregulartasuna? Normatik at egotea? Punka? Kontzeptu hauek guztiak sorkuntzarekin estuki lotuta daude baina. Sorkuntzari bide ematen diote eta prestigioaren diskurtso deseraikitzen duten kontzeptuak dira. Bestetik, prestigioa, ikusgarritasuna edo ospea tranpaz beteriko hitz malguak dira. Prestigio hori lortzeko dauden bideak ez dira berdinak denontzat eta genero edo gizarte maila arrakala nabaria egoten da.

arte. Últimamente, ejerciendo de directora del Centro de Arte Contemporáneo de Huarte. Licenciada en Historia del Arte por la Universidad del País Vasco, ha realizado labores de comunicación, gestión cultural, coordinación de exposiciones y organización en el Museo Oteiza o con la Galería Moisés Pérez de Albéniz. Creó un espacio de coworking llamado *Sala de máquinas* con otros 5 miembros. Es consejera de arte de la UEU y jefa de la delegación del IAC en Navarra.

En cultura, el prestigio por ejemplo, es un término que sirve para expresar que tienes una trayectoria profesional seria y razonable. Agrupo esta palabra en mi imaginario léxical entre términos clásicos y rígidos. Es una estructura no natural creada por los humanos, un marco coercitivo rígido que no deja lugar para la espontaneidad. ¿Qué sería lo contrario? ¿Desprestigio? ¿Tener mal nombre? ¿Marginación? ¿Ilegalidad? ¿Irregularidad? ¿Estar fuera de norma? ¿Punk? Todos estos conceptos están íntimamente relacionados con la creación. Son conceptos que dan pie a la creación y deconstruyen el discurso del prestigio. Por otro lado, prestigio, visibilidad o fama son palabras flexibles llenas de trampas. Las vías para alcanzar este prestigio no son las mismas para todas las personas y la brecha de género o de clase social es evidente.

**10:00-11:00 - Hitzaldia: Euskal kulturak hezkuntza arautua zeharka dezan**

***Iratxe Retolaza*** *(EHU)*

***Aurkezlea: Miren Basurto*** *(EIBZ)*

**10:00-11:00 - Ponencia: Euskal kulturak hezkuntza arautua zeharka dezan** *(Para que la cultura en euskera sea transversal en la enseñanza reglada)*

***Iratxe Retolaza*** *(UPV)*

***Presenta: Miren Basurto*** *(EIBZ)*



Iratxe Retolaza (1977, Donostia)
Euskal Filologian lizentziatua. EHUko Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Saileko irakaslea Arte Ederren fakultatean. Irakaskuntza-esparruan honako gai hauei loturiko ikasgaien ardura izan du: euskal literatura eta kultura, sormena, komunikazio-gaitasunak. 2009. urtetik aurrera Emakumeen Jabekuntza Eskolatan aritzen da dinamizatzaile-lanetan; batik bat euskal literaturaren eta euskal kulturaren inguruko ikastaroak

Iratxe Retolaza (1977, Donostia)
Licenciada en Filología Vasca. Profesora del Departamento de Lengua y Comunicación Vasca de la UPV/EHU en la facultad de Bellas Artes. En el ámbito docente ha sido responsable de materias relacionadas con la literatura y cultura en euskera, la creatividad, las competencias comunicativas. A partir de 2009 trabaja como dinamizadora en las Escuelas de Empoderamiento de Mujeres, sobre todo ha dirigido cursos sobre literatura y



gidatu ditu. 2012. urtetik aurrera Donostiako Emakumeen Etxean bi irakurle-talde gidatzen ditu: bata, euskal literaturaren ingurukoa; bestea, pentsamendu feministaren ingurukoa. Emagin Formazio eta Ikerketa Feminista elkarteko kidea da.

Kultur esperientziek eta kultur imajinarioek hainbat bide zabaltzen dituzte: munduan leku bat egiten laguntzen dute, komunitate bat egituratzen laguntzen dute, barne-mundua elikatzen dute, trukea sustatzen dute, jolaserako espazioa sortzen dute, arakatzera gonbidatzen dute eta abar. Bide horiek guztiak euskal kulturatik egiteak badakar mundu-ikuskera jakin batzuetatik aritzea, komunitate jakin batzuekin lotzea, jolaserako baliabide konkretu batzuetan trebatzea, eta abar. Hitzaldi honetan hezkuntza arautuan kultur geruza zein kultur elikatze horietako batzuetara hurbiltzeko proposamen zenbait aurkeztuko dira, betiere euskal kulturako sorkuntza-lanak gogoan izanda. Ibilbide horretan ekiteko modu zenbait proposatuko dira: trukea sustatzeko guneak, diziplinarteko begiradak eta ekimenak, sormen-jarduerak eta zehar-lerroak eraikitzeko bideak.

***11:00-11:30* - *Atsedenaldia***

***11:30-13:00* - *Gogoeta gidatua:* <u>Euskal kulturaren ikusgarritasuna eta prestigioa</u>**

***Gidaria: Jon Abril*** *(Elhuyar aholkularitza)*

***13:00-14:00*- *Hitzaldia:* <u>Bertsolaritza berritzea, publiko berrietara iristeko bidea</u>**

***Oihana Iguaran*** *eta* ***Eli Pagola*** *(Euskal Herriko Bertsozale Elkartea)*

***Aurkezlea: Julio Soto*** *(Bertsolaria)*

cultura en euskera. Desde 2012 dirige en la Casa de las Mujeres de San Sebastián dos grupos de lectoras: una sobre literatura en euskera y otra sobre pensamiento feminista. Es miembro de la Asociación de Formación e Investigación Feminista de matrona.

Las experiencias e imaginarios culturales abren caminos que ayudan a hacerse un lugar en el mundo, a estructurar una comunidad, alimentan el mundo interior, fomentan el intercambio, crean espacio de juego, invitan a explorar, etc. Recorrer todos estos caminos desde la cultura en euskera implica actuar desde determinadas concepciones del mundo, relacionarse con determinadas comunidades, formarse en unos recursos lúdicos concretos, etc. En esta conferencia se presentarán una serie de propuestas para acercarse a algunas de estas capas y aportaciones culturales en la educación reglada, teniendo siempre presente las obras creativas de la cultura en euskera. En este itinerario se propondrán diferentes formas de emprender: espacios para fomentar el intercambio, miradas e iniciativas interdisciplinares, actividades creativas y vías de construcción de líneas transversales.

***11:00-11:30* - *Pausa***

***11:30-13:00* – *Reflexión guiada:* <u>Euskal kulturaren ikusgarritasuna eta prestigioa</u>** *(Visibilidad y prestigio de la cultura en euskera)*

***Orientador: Jon Abril*** *(Elhuyar aholkularitza)*

***13:00-14:00*- *Ponencia:* <u>Bertsolaritza berritzea, publiko berrietara iristeko bidea</u>** *(Renovar el bertsolarismo, camino para llegar a nuevos públicos)*

***Oihana Iguaran*** *y* ***Eli Pagola*** *(Asociación de Bertsolarismo de Euskal Herria)*
***Presenta: Julio Soto*** *(Bertsolari)*



<u>Eli Pagola</u> (1995, Ereñotzu)
Bertsolaria. Energia berriztagarrietan eta ingurumen kudeaketan ingeniaria. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko zuzendaritza kidea eta Sustapen Saileko arduraduna da.

<u>Eli Pagola</u> (1995, Ereñotzu)
Bertsolari. Ingeniera en energías renovables y gestión ambiental. Es miembro de la directiva de Euskal Herriko Bertsozale Elkartea y responsable del Departamento de Fomento.





Oihana Iguaran (1991, Amasa)
Bertsolaria. Gizarte Komunikazioan doktoregaia (EHU). Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko zuzendaritza kidea eta Hezkuntza Saileko arduraduna da.

Bertsogintza berriaz eta plaza berriaz hausnarrean harrapatu gintuen mundua eta gure mundutxoa astindu dituen pandemiak. Plaza zaharra eta berria, biak jarri ditu kolokan; bertsogintza ez, zorionez. Euste lan horretan funtsezkoak izan dira talde antolatuak (izan elkarte edota zaleak) eta egoerara egokitzeko sortzaile zein antolatzaileen gaitasuna. Hain zuzen, bertsogintza eta plaza berrira bidean gako suertatu diren berberak. Pandemiak bilakaera katalizatu du eta hainbat joera utzi ditu agerian, aurrera begira aukera bilaka ditzakegunak.

**14:00** – ***Agurra erakunde antolatzaileen eskutik***

Oihana Iguaran (1991, Amasa)
Doctorando en Comunicación Social (UPV/EHU). Es miembro de la directiva de Euskal Herriko Bertsozale Elkartea y responsable del Departamento de Educación.

La pandemia que ha sacudido al mundo y a nuestro mundillo nos pilló reflexionando sobre el nuevo bertsolarismo y los nuevos escenarios públicos. El antiguo y el nuevo escenario, ha puesto en duda ambas; el bertsolarismo no, afortunadamente. En este trabajo de contención han sido fundamentales los grupos organizados (sean asociaciones o personas aficionadas) y la capacidad de creadores/as y organizadores/as para adaptarse a la situación. Precisamente, las mismas personas que han resultado claves de cara al bertsolarismo y los nuevos escenarios públicos. La pandemia ha catalizado la evolución y ha puesto de manifiesto una serie de tendencias que podemos convertir en oportunidades de cara al futuro.

**14:00** – ***Despedida de las entidades organizadoras***

# IZEN-EMATEAK: / INSCRIPCIONES:

# www.hariizpiahartzen.eus

Antolatzaileak/ Organiza:

KARRIKIRI.eus IRUÑEKO EUSKALDUNON TOPAGUNEA
elkar fundazioa
Nafarroako EUSKARA TEKNIKARIEN Sarea

Laguntzailea/ Colabora:

Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua

